

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasaren 2020ko errolda fiskalaren behin-behineko onarpena

José Ramón Molinuevo Laña, Amurrioko Udaleko alkatea (Araba),

Jakinarazten dut:

Alkatetzaren 2020ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez (2020/478 Dekretua), jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko eta aprobetxamendu bereziagatiko tasaren errolda fiskala onartu zen behin-behinean, 2020ko ekitaldiari zegokiona (2020/23/S903 espedientea).

Aipatutako espedientea jendaurrean jarriko da Udal honetako Udal Kontuhartzaitza Arloan, 15 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak eta oharrak aurkez daitezten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Amurrio, 2020ko abenduaren 22a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA